



24°

Baiona

INFO7 EN DIRECTO




Երբեք անհարգաբար

[EGUNEKO GALAK](#) | [EKONOMIA](#) | [EUSKAL HERRIA](#) | [IRITZIA](#) | [KIROLAK](#) | [KULTURA](#) | [MUNDUA](#) |

[EL TIEMPO](#) | [BLOGS](#) | [ESQUELAS](#)

22/08/2018

PUBLICIDAD

KULTURA

## Lerro artean irakurtzeko bizitza zatiak

Dendatik liburu berriarekin atera eta, zabalitzean, berri usainaz gainera, erabiltako orri-markatzaille bat aurkitu duzu. Bilboko metroaren txartel erabilia izan daiteke edo San Telmo museoan jada ez dagoen erakusketa baterako sarrera. Nork utzi du? Nor dago markatzaille horren atzean? Ze bizitza zati? Harridura horretan bildu nahi ditu irakurleak Maider Lopezen «Marcapáginas» interbentzioak: liburu berietan ezezagun boluntarioen objektuak sartuko ditu.

AMALUR ARTOLA | DONOSTIA

IMPRIMIR

ENVIAR

HEMEROTECA GARA HASTA 12/11/2013



## MILA

### BOLUNTARIO

Urrian argitaratuko den Chris Kraus-en «Video Green» liburuan egingo du interbentzioa Lopezek.

Horretarako, irailaren 25a bitartean mila orri-markatzailerabildi lortu behar ditu. Berea bidali nahi duenak, posta bidez edo adostutako puntuetan du aukera. Informazioa: [www.consonni.org](http://www.consonni.org)

HEMEROTECA GARA DESDE 12/11/2013

AZKENAK



Espazio publikoetan interbentzioak egin ohi ditu Maider Lopez artistak baina oraingo honetan, Consonni-ren HPC egoitza-programan parte hartu behar zuenez, arte garaikideko ekoiztetxe eta argitaletxearekin lotutako zerbait egin nahi zuen. Urrian Chris Kraus egilearen “Video Green” libururen gaztelaniazko itzulpena argitaratu behar dutela jakinda, jatorrizkoa irakurri eta hango esaldi batek eman zion Lopezi bere proiektu berrirako pista: «Zita batean, Krausek bildumazaletasun amateurrean aurreko jabearen eta berriraren artean sortzen den harremanaz hitz egiten zuen, ikusi ezin daitekeen harreman horretaz, eta pentsatu nuen irakurtzen dugunean denek markatzen dugula irakurketa esku artean dugun zerbaitekin, tiket bat edo sarreara bat: objektu horrek liburua kokatu egiten du, hamar urte barru topatzen badut gogoratuko naiz zinemari ikusi nuen pelikula hartaz, egin nuen bidaiaz edo pertsona jakin batez. Oso gauza pertsonala da. Egunerokotasuneko objektu hori ere partekatu zitekeela pentsatu nuen», azaldu du Lopezek.

Horrela sortu da “Marcapáginas” proiektua: boluntarioek bidalitako orri-markatzailerabildiak erabiliak bilduko ditu artista donostiarrak eta horiek “Video Green” libururen aleetan sartuko ditu, hau erosten dutenengan eragiteko. «Ale bakoitzak izango du objektu ezberdin bat barruan eta objektu hori izango da beste pertsona batek bizi duen

momentu bat. Orduan, hor sortuko da topatzen duen irakurlearen eta momentu hori bizi izan duen pertsonaren arteko harremana», zehaztu du.

Proiektuaren lehen fasea irailaren 25ean amaituko da. Parte hartu nahi dutenek ordura arte dute euren objektuak bidaltzeko epea, posta bidez (Consonni. Conde Mirasol kalea, 13. 48003 Bilbo) edota zenbait liburutegi eta museotan ezarritako postontziak erabiliita. Gutxienez mila objektu behar ditu, Kraus-en liburuaren lehen tirada mila alekoa izango baita, eta bidali daitezkeen objektuen artean baldintzak logikari jarraitzen diotenak soilik direla zehaztu du: lauak izan behar dute, liburuari kalerik egingo ez diotenak eta gehenez liburu estandar baten tamaina dutenak. Adibide modura, erosketetako zerrendak, museotarako sarrerak edota garraio tiketak alpatu ditu artista donostiarrek.

Behin material guztia jasota, sobreak ireki eta dokumentatu egingo ditu: «Bat-batean bilduma kolektibo bat sortuko da objektu horiekin. Nik orriak markatzeko nire modua dut, baina erakutsiko dugu jendeak nola egiten duen eta ze esperientzia dituen. Hori izango da denak batera dauden momentu bakarra, ze handik inprentara joango dira eta liburuetan sakabanatuko dira era aleatorioan».

### Zigiluak eta origamiak

Lehen gutun-azalak iristen hasiak direla ere kontatu du eta, orain artean bidali dutenagatik galdetuta, «aniztasuna» hitza azpimarratu du: «Aniztasun handia dago, bakoitzak bere estiloa eta bizipenak ditu. Baina, adibidez, jaso dugu Egiptoko zigilu urdin bat oso polita, origami bat, trenerako txartelak, erosketako oharrak... denetarik».

Objektu gehiago noiz iritsiko gogoz dagoela ere aitortu du, esku artera iristen zaiona «bizitza zatiak» direla sinetsita, eta proiektuaren helburua hausnarketa bideratzea ere badela nabarmendu du: «Ekintza sinplea da berez orriak markatzearena, baina zerbaite esaten du gutaz. Asmoa da norberak bere hausnarketa egitea alde batetik, agian orriak markatzeko modua ere aldatu duelako, eta, bestetik, objektua

naiz: Retweeted



El Parlamento navarro analizará la concesión a ETB-2 de una licencia en TDT  
naiz.eus/actualidad/...



28m

naiz: Retweeted



Asiron reitera la necesidad de que IE y Aranzadi  
«continúen dentro del cambio»

jasotzen duenak pentsatzea nor ote den, nolakoa ote den beste pertsona hori. Pertsonen bizitzen zatiak jasoko ditugulako, momentu sinpleak, baina gure bizitza osatzen joaten direnak». Proiektuaren berri ez duenaren kasuan, sorpresa faktorea ere sartuko da jokoan:

«Liburua ireki eta, 'zer egiten du honek hemen, tren txartel erabili honek nire liburu berraren barruan?' galdetuko dio bere buruari, eta hor hasiko da jolasa».

Amaitu aurretik, berak orrialdeak nola markatzen dituen ere kontatu nahi izan digu: «Sarrerekin, baina politak edo koloretsuak diren sarrerekin, izan kontzertuetakoak, museoetakoak... Nire inguruan dauden objektuak dira, baina egia da hautaketa bat egiten dudala, ez dut edozer gauza erabiltzen».